



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/01/19

Aldundiak lurzoruaren erabilerea kontrolau eta mugatuko dauen urigintzako beste planeamendu bat iragarri dau

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak filosofia barria iragarri dau gaur goizean Bilbo Metropolitarrako urigintza arloko planeamenduan. Planeamendu hori lurzoruaren erabileraren kontrol eta muga handiagoetan islatuko da. Diputatuaren esku-hartzea, Bilbo Metropolitarrako (BM) Alde Funtzionalaren Lurralde Plan Parzialaren (LPP-PTP) Batzar Nagusien aurreko aurkezpenean izan da.

2006an onetsi zan aurreko LPP-PTPa, krisialdiaren aurreko testuinguru sozioekonomikoan egin zan, eta daborduko aldatuta dagon beste lege eta arau esparru batean oinarrituta. Vicente Reyesek, oraingo honetan, herritarren eta urigintza arloko planeamenduagaz erlazionautako eragile publikoen eta pribaduen ikuspegia gehitu dau.

BMko LPP-PTPa, 900.000 pertsona inguru bizi diran eremu metropolitarraren lurralde mailako estrategia ezarten dauen legezko dokumentua da. Eremu metropolitarra 35 udalerrik osotzen dabe, Bizkaiko uriburua eta bere eraginpeko gunea barru dirala, Muskizetik Lemoizeraino kostaldetik eta Zeberioko mugeagaz hegoaldean eta Larrabetzukoagaz ekialdean. Dokumentuak, etxebizitza eta industria guneetako esku-hartze nagusiak, azpiegituren kokalekuak, gune naturalen babesak, mobikortasunerako estrategiak edo gune kaltetuetan izan beharreko esku-hartzeak planteetan ditu, beste batzuen artean.

Foru Diputatuak LPP-PTP barria gidetan daben funtsezko hiru ideak definidu ditu: lurzoruaren erabilerea mugatzea eta hazkundeak kontroletzea; uriko espazioaren zaharbarritzean, birgaitzean eta birdentsifikatzean sakontzea; eta landa inguruko habitatari eustea. Aurreko planeamenduan nagusi zan desarrollismoaren aurrean, dagon lurzoruaren erabilerak optimizetearen aldeko apustua egiten dau orain Aldundiak.

Vicente Reyesek emondako azalpenen ostean, Batzarretako taldeek euren lehenengo balorazioak adierazo ditue. Danak bat etorri dira esatean, dokumentua hobeto aztertu eta gero euren ekarpenak egingo dituela, eta, orokorrean, modu positiboan balorau dabe prozesua herritarrei zabaltzeak dakarren barrikuntzea. Dana dala, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeak kritikiko agertu dira, antolatutako tailerretan eta eztabaida saioetan oso pertsona gitxik hartu dabelako parte.

MANPARAK METRO BILBAON

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako batzordearen eguneko gai zerrendea, Bilboko Metroko nasatan manparak instaletako aukerearen gainean Talde Popularrak aurkeztutako arauz besteko proposamen bategaz osatu da. Bideragarritasunerako azterlan baten eskarian zehaztu dan proposamena onetsi egin da, ekimena proponidu dauen taldearen eta Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Mistoa taldeen aldeko botoakaz. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek kontrako botoa emon dabe, beste uri batzuetako esperientzia negatiboak aitatu, aurrekontu baliabide mugatuko testuinguruan horrek izango leuken kostuaz gain.

NOTA DE PRENSA

19/01/18

La Diputación anuncia un nuevo planeamiento urbanístico que controle y límite el uso del suelo

El Diputado Foral del Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha anunciado esta mañana una nueva filosofía en el planeamiento urbanístico del Bilbao Metropolitano, que se concretará en un mayor control y limitaciones en el uso del suelo. Su intervención se ha producido en la presentación ante las Juntas Generales de la revisión del Plan Territorial Parcial (PTP) del Bilbao Metropolitano (BM).

El PTP precedente, aprobado en 2006, correspondía a un contexto socio- económico anterior a la crisis y a un marco legislativo y normativo que se ha visto modificado. A estos factores Vicente Reyes ha añadido la necesidad de incorporar aportaciones por parte de la ciudadanía y de agentes públicos y privados relacionados con el planeamiento urbanístico.

El PTP del BM es un documento legal que establece la estrategia territorial de un ámbito metropolitano en el que residen cerca de 900.000 personas, y que está integrado por 35 municipios, incluyendo la capital vizcaína y su área de influencia, desde Muskiz hasta Lemoiz en la costa y con los límites de Zeberio por el sur y Larrabetzu por el este. El documento plantea las principales intervenciones en zonas residenciales e industriales, la ubicación de infraestructuras, la protección de áreas naturales, las estrategias de movilidad o la intervención en zonas degradadas, entre otras.

El Diputado Foral ha definido las tres ideas fundamentales que guían el nuevo PTP: limitar el uso del suelo y controlar los crecimientos; poner énfasis en la rehabilitación, la regeneración y la re-densificación del espacio urbano; y el mantenimiento del hábitat rural. Frente al desarrollismo inherente en el planeamiento anterior, la Diputación apuesta ahora por optimizar los usos del suelo disponible.

Tras la explicación de Vicente Reyes, los grupos junteros han expresado sus primeras valoraciones. Todos han coincidido en que, tras un estudio más exhaustivo del documento, realizaran sus aportaciones, y en general han valorado positivamente la innovación que supone abrir el proceso a la ciudadanía. No obstante, tanto Podemos Bizkaia como EH Bildu se han mostrado críticos por las escasas cifras de personas que han intervenido en los talleres y encuentros organizados hasta la fecha.

MAMPARAS EN METRO BILBAO

El orden del día de la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con una Proposición No de Norma presentada por el Grupo Popular sobre la colocación de mamparas de seguridad en los andenes de Metro Bilbao. La propuesta, concretada en la solicitud de un estudio de viabilidad, ha sido aprobada con el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Mixto, además del grupo proponente. Podemos Bizkaia y EH Bildu han votado en contra esgrimiendo experiencias negativas en otras ciudades, además del costo que el estudio supondría en un contexto de recursos presupuestarios finitos.